

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko dituzun testuei lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

**Lan-unitatean landuko duzun gaiari** lotutako ideiak:

- ✓ **Oporrak: hotela ala etxe partikularra?** izeneko **bideoa** (18'10") **ikusi**. Ondoren, **horren inguruan duzun iritzia azaltzeko testu labur bat idatzi eta igo euskaltegiaren blogera**. Nahi izanez gero, igo aurretik, emaitza irakasleari, begiratu bat eman diezaion.
- ✓ **Turkiara oporretan, eta agur burusoiltasunari** izeneko audioa (4'08") **entzun**. Hor, azalduko digute ile-implantea egiteko ebakuntzak osasun-turismo bihurtu direla Turkian. Munduan, era horretako implante-kopuru handiena egiten duen herrialdea da, eta bezeroen artean asko Euskal Herrikoak dira. Bilboko hotel batean, 110 balizko bezero elkartu ditu asteburuan Turkiako klinika batek. Guztiak gizonezkoak, 30-40 urte ingurukoak, eta batzuek jada implantea eginda dute. Horren inguruko informazioa entzun ondoren, **grabatu** audio labur bat zure iritzia azaltzeko, eta **konpartitu** ikaskide batekin.

**Oporrak euskara ikasteko aprobetxatzeari** lotutako ideiak:

- ✓ **Helbide honetan**, udako oporrak euskara ikasten emateko esperientzia bat aurkituko duzu. Bisitatu, ikusi, eta, ondoren, **audio labur bat grabatuko duzu** horren inguruan duzun iritzia azaltzeko, eta **igo euskaltegiaren blogera**. Nahi izanez gero, igo aurretik, emaitza irakasleari, begiratu bat eman diezaion.

**Oporrak eta artea:**

- ✓ Ba al dakizu nortzuk diren *2 princesses barbudes*? Nongoak dira? Zer egiten dute? Zer harreman dute "oporrekin"? **Bilatu** informazioa Interneten, eta eraman ikasgelara, ikaskideekin komentatzeko. Nahiz izanez gero, **hona hemen helbide bat**.
- ✓ Antton Telleria aurkezlea oporrei begira jarri da, eta oporretan **irakurtzeko** moduko liburu bat (Harkaitz Canoren *Beti oporretan* liburua) gomendatzen digu Euskal Telebistan. **Ikusi saioa, eta grabatu zeuk ere horrelako bideo labur bat, oporretan irakurtzeko moduko liburu bat gomendatuz; gero, igo euskaltegiaren blogera**.
- ✓ Koldo Almandoz zinemagilea ere oporrei begira jarri da, eta oporretan **ikusteko** moduko film bat (*Rosseta*) gomendatzen digu Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan. **Entzun ezazu saioa, eta komentatu ikaskideekin**. **Hona hemen helbidea**.
- ✓ Era berean, ikusi *Aupa, Etxebeste!* euskal filma (EiTBren webguneko nahieran atalean duzu aukera). Ikusi ondoren, **komentatu ikaskideekin**.
- ✓ Nolakoak izaten ziren umetako zure oporrak? **Sartu BERRIAK oporrei buruz prestatutako atal berezian**, eta irakurri nolakoak ziren pertsona batzuen umetako oporrak (hamarkadaka daude ordenatuta). Nola aldatu dira oporrak azken hamarkadetan? Nola igarotzen zuten umetako oporraldia aurreko belaunaldiek? Nola oraingoek? Behin batzuk irakurrita, **idatzi** zeuk ere horrelako testu bat, umetako zure oporrak nolakoak ziren kontatzeko, eta **igo euskaltegiaren blogera**.